


FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Gure aplikazioa martxan jartzeko, **baliabideak eskuratzeko enprekin aliantzak sortuko** ditugu:

1. **Gasteizko supermerkatu** desberdinekin harremanetan jarriko gara eta kontaktua mantenduko dugu; izan ere, haien **produktuen datu basean sartu** behar gara bakoitzak dituenak ezagutzeko eta horiek aplikazioan txertatzeko. Modu horretan, **produktuen kokapena, prezioa, marka eta bestelako ezaugarriak ezagutzeko aukera** emango digu.

Gure aplikaziorako baliagarriak izango diren supermerkatuak hurrengo hauek izango dira eta beraz, proiektua gauzatzeko lan egingo dugun enprekin:

SUPERMERKATUAK	LOGOA
EROSKI	
MERCADONA	
CARREFOUR	
LIDL	

Hauek erabaki ditugu gure aplikazioa egiteko; izan ere, gure gizartean **bezero gehien dituztenak** dira eta biztanleria hauekiko **sentsibilizatuago** daude beste supermerkatu batzuekin konparatuz. Gehienetan, jendeak supermerkatu hauetan egiten dituzte erosketak gehien ezagutzen direnak baitira, nahiz eta gehiago egon: Aldi, Alcampo, Coviran, BM.. Hasieran, supermerkatu hauekin lan egiten hasiko gara eta etorkizunean ondo badoa zabaltzea baloratuko dugu. Izan ere, ikusten badugu, aplikazioa egoki funtzionatzen ari dela eta gainontzeko supermerkatuetara zabaltzea **errentagarria** izango zaigula, egoera ebaluatuko genuke eta erabaki bat hartuko genuke.

2. Gure aplikazioa garatu ahal izateko informatikan eta smartphonetako aplikazioetan aditua den **informatika enpresa** baten laguntza behar dugu. Enpresa ezberdinak aztertu ondoren, **Bilboko xtremis enpresa** aukeratzea erabaki dugu. Izan ere, enpresa hau gure **beharretara hobeto egokitzen** den aplikazioa diseinatzeko eta ekoizteko gai dira. Aipatzekoa da ere, enpresa honek eskaintzen dituen zerbitzuak beste informatika enprekin konparatuta kostu baxuagoa dutela.



3. **Negoio-eredua optimizatzeko eta arriskuak murrizteko** gure ideiarekiko ziurtasuna eta konfidantza hartzeko helburuz, Gasteizen topa ditzakegun **beste baliabide** batzuekin lan egingo dugu, hain zuzen ere **ikusmen urritasuna** lantzen duten erakunde batekin.

Lankidetzan arituko garen enpresa, **ONCEren fundazio solidarioa** izango da. ONCEren fundazioak bat egin du proiektu horrekin, **irisgarritasun handiagoa** bermatzeko; izan ere, ONCEren **helburu nagusia** da desgaitasuna duten pertsonak laneratzeko, prestatzeko eta enplegatzeko programak egitea, bai eta irisgarritasun globala sustatzea ere, **guztionezako ingurune, produktu eta zerbitzuak sortzen lagunduz**. Fundazio honek, gure aplikazioa errazten eta egokitzen lagunduko digu, horretarako beharrezkoak direnak ezarriz, esaterako,

braille-egokitzapenak eginez, kolektiboaren inguruan informazio gehiago emanaz guk sakonago ezagutzeko etab.

